

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, MENETAR
KIROL KLUBAK BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESKOLA
FUTBOLEKO KIROL LEHIAKETARAKO ETA DIZIPLINARAKO LURRALDE
BATZORDEAK 2016KO URTARRILAREN 16AN EMANDAKO
EBAZPENAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA ONESTEN
DUENA.**

Espediente-zk.:5/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko otsailaren 29an Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Idazkaritzan sartu zen Menetar Kirol Klubeko presidentearen idatzia. Haren bidez, errekurtsua aurkeztu zuen Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 16an emandako ebazpenaren kontra. Ebazpen horretan honako erabaki hau hartu zen: *“Berriotxoaren aurkako partida galdutzat ematea jokalariai zerrendan behar ez bezala sartzeagatik, ez baita errespetatu aldaketen araudia (15.G artikulua, 17.2 H artikuluekin lotuta)”*.

Errekurtsio-idatzi horrek ez zituen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 110.1 artikuluan bildutako baldintzak betetzen (errekurtsio-egilearen identifikazioa eta sinadura falta zitzaizkion) eta beraz, huts horiek zuzentzeko eskatu zitzaion. Zegokion epean zuzendu zen idatzia, 2016ko martxoaren 11n aurkeztu zen dokumentu baten bidez, hain zuzen ere.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak aipatutako errekurtsua izapidetzea eta Bizkaiko Futbol Federakundeari espediente eskatzea onartu zuen. Era berean, alegazioak izapidetzeko eta kasua balitz, froga-eginbide egokiak aurkezteko aukera eman zion.

Horrez gain, idatziaren berri eman zitzaion U.D. La Merced taldeari, alegazio egokiak egiteko, eta ez du inongo adierazpenik egin.

Hirugarrena.- 2016ko apirilaren 13an Bizkaiko Futbol Federakundeak bidalitako idatzia eta bere Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak bidalitako txostena jaso ziren.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan xedatzen duena; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahala erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan errepikatzen da hori, eskola kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoan, 4.1 artikuluan.

Bigarrena.- Errekurtsioa aurkezteko bidea eman duten egitateak 2016ko otsailaren 16an gertatu ziren, U.D. La Merced 05 eta Berriotxo F7 05 taldeen arteko partidaren egunean. Partida hori Kimuen Futbol-7 txapelketaren bosgarren egunean jokatu zen, B Ligan, 25. taldean.

Jokozainak egindako aktan honako hau adierazi da: "*partida amaitu zenean, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jauna etorri zitzaidan, La Merced taldearen ordezkaria, Berriotxo taldeak jokalarien 15 lizentzia aurkeztu zituela eta haietako bat, 13. zenbakiduna, jokatu gabe geratu zela esanez. Aipatutako jokalaria horrek bi zati jokatu dituela apuntatu da aktan, sistema eragileak zatiren bat jokatu duela idaztera behartzen ninduelako. Ordezkariak jokalaria guztiek jokatu dutela esan dit eta nik neuk egiaztatu dut (sic) futbol-zelaian aipatutako jokalaria falta zela*".

Egitate horiek direla eta, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak, 2016ko urtarrilaren 16an emandako ebazpenean, partida galdutzat ematea erabaki zuen, jokalariak zerrendan behar ez bezala sartu izanagatik. Izan ere, ez zen errespetatu aldaketen araudia -15.G artikulua, 17.2 H artikuluekin lotuta dagoena- (manu horiek uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan ageri direnak dira, eskola kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoan).

Aurkeztutako errekurtsioan, Menetar Kirol Klubeko presidentek partidara bere taldeko 13 jokalaria bakarrik joan zirela argudiatu du baina jokozainak lehiaketa izena eman zuten 14 jokalaria sartu zituen, taldearen ordezkariak akta batzera joan zenean oker zegoela konturatu zen arren, gaixorik zegoen eta partida jokatu ez zuen jokalaria bat ere agertzen zelako. Horren berri eman zion jokozainari, jokalaria aktatik kentzeko (aktan jokalaria horrek bi zati jokatu zituela ageri zen). Hala ere, errekurtsio-egileak adierazitakoaren arabera, jokozainak ordezkariari esan zion "*ez zekiela aktatik nola kendu*".

Berriotxo taldeak 14 fitxa aurkeztu ordez 15 aurkeztu zituela salatu zuen aurkako taldeak. Akusazio horren aurrean, taldeko presidentek "*ezinezkoa dela*" adierazi du, "*14 lizentzia bakarrik dauzkagulako*".

Horrez gain, honako hauek aurkeztu ditu: "*xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jokalariaren amak bere semea gaixorik dagoela eta partidara joango ez dela dioen whatsapp elkarrizketa eta ikastetxearen bertaratze-akta, xxxxxxxxxx ikastetxera joan ez zela erakusten duena, gaixorik zegoelako*".

Hirugarrena.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak errekurtsio-egileak egindako alegazioen inguruko zenbait kontsiderazio egin ditu bidalitako txostenean. Lehenik eta behin, honako hau dio errekurtsioa aurkeztu zen dataren inguruan:

"Lehenik eta behin, errekurtsioa epez kanpo aurkeztu dela uste dugu, interesdunari 2016-01-21ean eman baitziztaion Batzorde honek adostutako

zigorraren berri. Errekurtsoa urte bereko otsailaren 29an aurkeztu zenez, legeriak ezarritako 7 laneguneko epetik kanpo aurkeztu zen (...)"

Bigarrenik, eztabaidaren funtsari dagokionez, honako hau adierazi du Batzordeak:

“Errekurtsoa aurkezteko izandako arrazoian zentratzen bagara, errekurtsua ezetsi beharra dagoela ikusiko dugu. Izan ere, zalantzan jartzen du jokozainak egindako aktaren ustezko egiazkotasuna, horretarako inongo frogarik izan gabe.

Errekurtso-egileak xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jokalariaren amarekin whatsapp bidez izandako elkarrizketa bat aurkeztu du, ikastetxearen egiaztagiri batez gain.

Gure ustez, froga horiek ez diote egiazkotasunik kentzen aktari. Izan ere, alde batetik, alderdi interesdunak egindako dokumentu bat aurkeztu da, egiaztagiria: bestetik, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx deitzen den eta benjaminen taldekoa den pertsona bati buruzko whatsapp bat, kasu honetan kimuen partida bati buruz ari garenean.”

Hori guztia dela bide, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordearen ustez, errekurtsua ezetsi beharko litzateke.

Laugarrena.- Behin errekurtsio-egilearen idatzian eta Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordearen hausnarketetan egindako alegazioak azalduta, kasu honi dagokionez, errekurtsua onetsi beharko litzatekeela uste dugu, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, Menetar Kirol Klubak errekurtsioa epez kanpo aurkeztu izanari dagokionez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen

59.1 artikulua honako hau dioela adierazi beharra dago, administrazioaren jakinarazpenen inguruan:

"Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, betiere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea espedienteari atxikiko zaio".

Antzeko hitzekin, eskola kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 39.2 artikulua dio *"Edozein bide erabili ahal izango da jakinarazpena egiteko, betiere, egiaztatze aukera ematen badu interesdunek jakinarazpena jaso izana (...)"*.

Kasu honen espedientea aztertuta, ez da ageri Menetar Kirol Klubari noiz eman zitzaien Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak hartutako erabakiaren berri. Hain zuzen ere, espediente horretan posta elektronikoko zerbitzari baten kopia dago ("pantaila-argazkia" esaten zaiona). Bertan irteerako postontzian "UD La Merced - Berriotxo" izenburudun mezu bat dagoela ikus daiteke, 2016ko urtarrilaren 21ean bidali zena, 19:13an.

Dena den, ikusi dugun legez, ez dago Menetar Kirol Klubak jakinarazpena jaso zuen data egiaztatze frogaz zehatzik, bidali zeneko frogaz baino ez. Horrenbestez, ezin da esan errekurtsioa epe kanpo aurkeztu denik, erabakia bidali zenetik errekurtsioa aurkeztu zenera arte hilabete baino gehiago igaro bazen ere, ez baitakigu zein datatik aurrera kontatu behar diren errekurtsioa aurkezteko ematen diren zazpi lanegun horiek.

Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak 2016ko urtarrilaren 7an emandako epaian adierazi zen legez, *"administrazio-ekintza kanpoan eraginkorra izan dadin, jakinarazi egin behar da (...), bai doktrinak eta bai jurisprudentziak funtsezkotzat jotzen duten bermea da"*. Jarraian, honako hau gehitzen du: *"inork ez du zalantzan jartzen jakinarazpen elektronikoaren*

legezkotasuna, baina jakinarazpena funtsezko bermea denez, Administrazioak jakinarazpena balioduna izateko beharrezkoak diren baldintza guztiak bete direla egiaztatu behar du". Ikusi dugun legez, ezin da esan baldintza horiek egiaztatu direnik.

Bosgarrena.- Gaiaren funtsari dagokionez, zehapen-araubidearen arloan, uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak berak, eskola kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoak, honako hau dio 6.2 artikuluan: *"diziiplina-erantzukizuna zehazteko orduan, diziiplina-organoek zehapen-zuzenbide orokorreko printzipioak errespetatu beharko dituzte"*.

Jakinarazpenekin lotutako printzipio horietako bat aipatu dugun 30/1992 Legearen 137.1 artikuluan ageri da, honako hitz hauekin:

"Zehapen-prozedurek erantzukizun administratiborik ezaren presuntzioa errespetatuko dute, kontrakoa frogatzen ez bada".

Hau da, guztiz beharrezkoa da interesdunari zigorra ezartzeko erabaki oro eta kasu honetan irabazitako partida galdutzat emateko erabakia behar bezala arrazoitzea.

Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak berak, eskola kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoak, honako agindu hau ematen du 39.1 artikuluan: *"Kirol-arloko diziiplina-prozeduretan emandako ebazpenak arrazoituak izan behar dira, eta interesdunei jakinarazi behar zaizkie"*.

Eta jarraian azaldu dugun legez, honako kasuan ezin da esan nahikoa arrazoitu denik.

Zigortzeko erabakia arau bat hautsi dela ebaztera mugatzen da eta honako hau dio hitzez hitz: *"akta eta egoki diren gainerako elementuak aztertuta eta Eskola Kiroleko Diziiplina-araubidearen II. kapituluan aipatzen diren artikulua kontuan hartuta"*.

Honako hauek dira aipatutako artikuluko horiek: arestian aipatu dugun 391/2013 Dekretuaren 15 g) artikulua, arau-hauste larritzat jotzen duena *“jokalarien zerrendan sartu behar ez diren kirolariak zerrenda horretan sartzea, arau-hauste oso larritzat hartu ez bada”*, eta araudi bereko 17.2 h) artikulua, arau-hauste larriengatik ezar daitezkeen hamar zigorretatik bat biltzen duena, zehazki *“egun bati edo proba bati dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzea”*.

Egia da jurisprudenzian ia ez dela aipatu ere egiten arrazoitu beharraren baldintza. Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2001eko apirilaren 16an emandako epaian ageri den legez, *“frogatutako egitateak biltzen dituen ebazpena behar bezala arrazoitu dela ondorioztatzeko jurisprudenzia-doktrina ugaria da, eta aplikatu beharreko zuzenbideak (...) egitatea modu garbian azaltzen dute eta zigorra ezarri izana arrazoitzen dute, legezko manuak aipatuz eta batzuen eta besteen arteko lotura azalduz”*.

Hala ere, aztertutako dugun kasuan gutxieneko baldintza hori ere ez da betetzen, ez baitira inon aipatzen zigorra eragin duten egitate zehatzak, ezta horiek aplika daitezkeen zuzenbidearekin zein lotura duten ere. Legezko menuak aipatu baino ez dira egiten.

Hain zuzen ere, arrazoitu behar dela esaten denean ez da esan nahi derrigorrez sakon eta xehetasunekin arrazoitu behar denik aspektu eta ikuspegi guztietatik. Ebazpenek hartutako erabakia funtsatzeko oinarrizko irizpideak ezagutzea ahalbidetzen duten arrazoiak biltzen dituztenean, behar bezala arrazoituta egongo dira. Horrela, interesdunek ebazpen hori juridikoki zuzena den edo ez ikusi ahalko dute, ostean aurkaratu ahal izateko (Auzitegi Gorenak 1995ko urriaren 31n emandako epaia edo 1998ko otsailaren 11n emandakoa, beste askoren artean). Kasu honetan ez dira arrazoi horiek eman.

Amaitzeko, aipatu den definizio faltaren ondorio modura, arau-hauste larri orori aplika dakizkiokeen zigor guztietatik partida galdutzat ematearena hautatu da eta ez beste zigor arinago bat, kargu-hartze publiko edo pribatua esaterako, eta ez da horren zergatia azaldu.

Argi dago Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak balorazioa egiteko ahalmen osoa duela baina ahalmen hori bidegabekeria bilakatu ez dadin, arreta berezia eskaini behar zaio hartu beharreko erabakien justifikazioari, arrazoietan gehiegi sakontzen ez bada ere.

Seigarrena.- Espedientearen gainerakoaren azterketa egiteak ere ez du ondorioak ateratzen laguntzen.

Egindako arau-haustea zein izan den zehazteko orduan jokozainak egindako akta dokumentu nagusia izan behar bada ere (eta are gehiago UD La Merced taldeak alegaziorik egin ez duela kontuan hartuta, Berriotxoa taldeak emandako bertsioa bakarrik baitauekagu), akta hori irakurrita bakarrik (bigarren oinarrian hitzez hitz transkribatu da) nahasmendua sortzen da, partida bukatu zenean UD La Merced taldearen ordezkariak jokozainari esan ziona bakarrik bildu delako, datu objektibo propiorik eman gabe. Bertaratu ez zen jokalaria aktatik nola ezabatu ez zekiela eta "*futbol-zelaian aipatutako jokalaria falta zela*" baieztatu baino ez da egin (azken hori eztabaidagarria da, errekurso-egileak berak baieztatu baitu) eta batez ere, ezin da ulertu arau-haustea zertan datzan zehatz-mehatz, hots, jokalaria zerrendan behar ez bezala sartzea, partida hasi aurretik Berriotxoa taldeko jokalarietako bat gaixorik zegoela eta bertaratu ez zela abisatu ez zelako edo jokalaria horren ordezkari beste batek jokatu zuelako (azkeneko kasu horretan ordezkari jokalaria identifikatu behar zen edo espedientearen adierazi behar zen), edo 15 fitxa aurkeztu zirelako. Berriotxoa taldeak azkeneko hori ukatu du, "*14 lizentzia bakarrik dauzkagulako*" baitio.

Zehaztasun falta horren ondorioz, ezin da gutxieneko zorrotasunarekin esan arau-haustea zertan datzan. Izan ere, egitateak argitasunez jasotzen ez badira (eta berriro diogu jokozainak egindako aktan eta Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak hartutako erabakian ez dela hala izan), ezin da arau-haustea sailkatu eta beraz, administrazioko arau-hausterik egon ez delako presuntzioa nagusitu behar da.

Zazpiarrena.- Azkenik, Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak egindako txostenari dagokionez, Menetar Kirol Klubak egindako alegazioen harira egindakoa, taldea xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jokalariai osasun kontuengatik partida jokatu ez zuela esatera mugatzen dela adierazi beharra dago. Horretarako, whatsapp bidezko elkarriketa baten irudia (berdin dio "benjamin" hitza agertzen bada ere, whatsapp taldea jokalariai kategorian horretan zeudenean sortu ahal izan zelako eta behar bada taldeari izena aldatu ez zaiolako) eta Berriotxoaren Ikastetxeko idazkariak egindako egiaztagiria bat aurkeztu ditu. Egiaztagiria horretan partidaren aurreko egunean aipatutako ikaslea ikastetxea joan ez zela dio, gaixorik zegoelako.

Hala ere, ezin da ulertu jokozainak egindako akta zein puntutan ez datorren bat jokalaria gaixo zegoela dioten egiaztagiriarekin, jokozainak akta horretan baita ez zuela jokalaria hori parte hartzen ikusi eta ez zekiela aktatik nola kendu behar zuen. Akta horretan ez da ageri jokalaria horren ordean beste jokalaria batek jokatu zuenik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

1.- Menetar Kirol Klubeko presidentek Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 16an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsioa onestea eta ebazpen hori baliogabetzea. Aipatutako ebazpen horren bidez, honako erabaki hau hartu zen: *"Berriotxoaren aurkako partida galdutzat ematea jokalariai zerrendan behar ez bezala sartzeagatik, ez baita errespetatu aldaketen araudia (15.G artikulua, 17.2 H artikuluekin lotuta)".*

2.- 2016ko otsailaren 16an U.D. La Merced 05 eta Berriotxoaren F7 05 taldeek jokatutako partidari 3-4 emaitza ematea, bigarren taldearen alde,

emaitza horrek sailkatzeko izango dituen ondoreekin. Kimuen Futbol-7 txapelketaren bosgarren egunean jokatu zen partida, B Ligan, 25. taldean.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epategian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 8a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea